

ERABAKIA, 2017KO UZTAILAREN 4KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZAKO SISTEMETAKO TEKNIKARIA (PROIEKTUAK) LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA EGINKIZUNEN ESLEITZEAN BETETZEKO 2017KO MAIATZAREN 26KO DEIALDIA EBATZI DA.

#### GERTAKARIAK

**Lehenengoa.-** Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearen 2017ko maiatzaren 26ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena.-** 2017ko ekainaren 21eko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

**Hirugarrena.-** Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.-** Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-erloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

**Bigarrena.-** Deialdiko lanpostua Eginkizunen Esleitzean erregimenaren bidez hornitzeko prozedura hau da: AZPko lan kontratudunen plangintza batzordearen 2013ko uztailaren 4ko Akordioa (AZPko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeari buruzkoa), UPV/EHUko Gobernu Kontzeiluaren 2013ko uztailaren 18ko bileran berrestatua,

**Hirugarrena.-** Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak hurrenkera ordenatuan baloratu ondoren goren geratzen den pertsona.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

#### EBAZTEN DU

**Lehenengoa.-** Deialdiko lanpostua lan kontratuaren bitartez, aldi baterako esleitzea, hautatutako lan-kontratudun langileari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

**Bigarrena.-** Esleipena L283 lanpostuaren titularrak jubilazio partziala hartzen duen egunekoa ondorio-datatz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2013ko uztailaren 4ko akordioaren 8.artikuluaren adierazitakoaren arabera.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

**Laugarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaleei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

**Bosgarrena.-** Erabaki honen kontra lan-auzibideko epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, Erabaki hau jakinarazten den biharamunetik. Hori guztia, 36/2011 Legeak urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69,2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioan, 2017ko uztailaren 4an.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko EHAA).

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAIN TASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

## I. ERANSKINA

### **2017ko maiatzaren 26ko EGINKIZUNEN ESLEIPENA deialdiaren Erabakia**

---

**Esleipenduna:** NEREA FERNANDEZ ALVAREZ  
**Lanpostua:** Sistemetako teknikaria (proiektuak)  
**Erref:** L 8  
**Zenbatgarrena:** 1  
**Lanaldia:** Arautua  
**Taldea:** I  
**Kategoria profesionala:** IKTko goi mailako teknikaria  
**Espezialitatea:** Aplikazioen Informatika  
**Maila:** 24  
**HE:** 3  
**Langunea:** INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZA  
**Campus:** BIZKAIA  
**BE:**  
**Ondorio data:** L283 lanpostuaren titularrak jubilazio partziala hartzen duen egunekoa

